

## DIRU SARRERAK:

Gure diru-sarrera nagusiak, hurrengoak dira: jarritako hasierako kapitala 20.000€koa izango da. (Gorka 8.000€, Kerman 4.000€ Markel 8.000€). Hasierako kapitala handia da gastu ezberdinak ordaindu behar ditugulako (lokala, langileak, droiak...).



Tabernek gure zerbitzua erabili ahal izateko, harpidetutakoan ordaindu beharreko diru kantitatean oinarritzen dira, bereiziki, gure diru-sarrerak. Halaber, hauek, handiagoak izango dira eskaera bakoitzeko prezioaren %13 gure enpresari dagokiolako. Gure zerbitzuaren erosotasuna eta bizkortasuna kontuan harturta, bezeroek gehiago ordainduko dute. Gainera, gure web orrialdean agertuko den publizitateari esker, udaletxeak emandako diru-laguntzei esker eta mailegu ezberdinei esker, diru sarrera gehiago lortuko ditugu.

Gure aurreikuspenetan oinarrituta, lehen urtean 40.000€ inguru lortzea espero dugu. Hurrengo urteetan gure zerbitzuei jatetxe edo taberna harpidetu eskero, 70.000€ko irabazia urtero espero dugu.

Guk dugun aurreikuspena, Covidaren garapenekin bat joango da. Hau da, Coronavirusaren aurrerapen erraldoiek, gure negozioa merkatuan ezartzeko aukera ematen digu eta gure bezeroak konturatzeko gure zerbitzuek dauzkaten abantailei buruz.

